



IZTUETAKO ZUBIBIDEAN GAUEKO LANAK HASIKO DIRA

- Katenaria desbideratuko da trenbidearen gaineko zubibidearen zatia kendu aurretik

Gaurtik aurrera, otsailaren 22tik aurrera, Iztuetako zubiaren elementu zentralak eraisteko lanak hasiko dira. Gueuz izango dira, trenbideko zirkulazioari ahalik eta kalte gutxien egiteko, eta 24: 00etatik 05: 00etara bitartean egingo dira, trenen joan-etorria oso txikia denean.

Duñike Agirrezabalaga Hiri Proiektuetako zinegotziak adierazi duenez, "egin beharreko lanetako bat trenaren katenaria lekuz aldatzea da, zubitik zintzilik dagoena eta behin-behineko euskarri batzuetara eramango dena. Gaueko ordutegian 10 eta 15 egunez luzatuko den operazioa da".

Aldi berean, obra zibileko zenbait lan egingo dira ADIFen zerbitzu berriak egokitzeko: zangak, kutxatilak, kanaletak eta hodiak instalatzea. Bertan zuntz optiko, seinaleztapen eta indarrezko lineak jarriko dira. Lan horiek hiru astez egingo dira.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Agirrezabalagak azaldu duenez, Mandasko Dukearen eta Egiako galtzadaren aparkalekuetako bide-seinaleak margotzeko aprobetxatuko dute, eta Jai Alaitik Miserikordia kalearekiko bidegurutzeraino geratuko da, noranzko bakarrean. Pintaketa lan honek gau bat iraungo du, eguraldiak laguntzen badu.

Gaueko lanek eragozpenak sor diezazkiekete hurbilen dauden bizilagunei, eta, horregatik, Donostiako Udalak barkamena eta ulermena eskatu nahi die ingurunearentzat hobekuntza nabarmena ekarriko duten obra batzuegatik, dagoeneko aldatzen ari baita inguruko fisonomia.